

Mende laurdenaren lekuko

25 urte bete dituen SIADECOn Iñaki Larrañagarekin Euskal Herriko gizartean urteok utzi dutenaz hitz egin dugu

JOXANJEL ALDAI / DONOSTIA

Gizarte arazoan ikerketarako elkarteak (SIADECO) sortu zutela 25 urte bete dira joan berri zaigun 1992an. Urtearen hondarrean elkarrearen buru egiten duen Iñaki Larrañagarekin solas egiteko aukera izan dugu. Luze joan da mende laurdena, eta urte horietan Euskal Herriko gizarteak ezagutu dituen aldaketa handiak ezin hobeto ikusteko eta aztertzeko aukera izan du SIADECOK bere lan isiletik. Euskal Herriko arazo sozio-ekonomikoei erantzun teknikoak emateko sortu zuten elkarteak, eta egun ere, Larrañagak nabarmendu digunez, horretan ari dira, arazo sozio-linguistikoak ezezik sozio-ekonomikoak ere aztertzen.

EGUNKARIA.— Nola sortu zen SIADECO?

IÑAKI LARRAÑAGA.— 1967an, garapen komunitarioari buruzko jardunaldiak izan genituen, eta haien baitan, talde bati bururatu zitzaion ea zergatik ez genuen hemen, Europako beste tokietan bezala, lanerako talde bat osatzen, pluridisziplinaria izango litzatekeena, —soziologoak, ekonomilariak, ingeniariak, gizarte laguntzaileak, hirigintzaren inguruko zenbait lanetan jardun zuten arkitektoak, abokatuak...— Hala osatu genuen taldea.

EGUNKARIA.— Helburu jakin batekin jaio al zen SIADECO?

LARRAÑAGA.— Euskal Herriko gizarteak bizi zituen arazo sozio-ekonomikoei erantzun teknikoak ematea zen gure helburua, bereziki. Bai azterketa aldetik, eta baita ere, irtenbide posibleen aldetik.

Hala ere, helburu nagusi gisa genuen afektatuen ahalik eta partehartze handiena lortzea. Gure aportazio teknikoa eta jendearen partehartzea uztartu nahi genituen, eta printzipio gisa hartu genuen hori.

SIADECOn hasierako lanak garai harekin erabat lotuak daude. Izan ere *desarrollismoaren* garaian geunden bete-betean, eta horrek berekin problematika berria ekarri zuen. Industria, nolahalakoa, asko garatzen ari zen, auzotzar berriak sortzen ari ziren, kanpotik jende asko etortzen ari zen... Ondorioz, ordura arteko nolabaiteko homogenotasun sozio-kulturala ere hausten hasten da, aldatu egiten da, eta desorekatua gelditzen da. Orduan arazo zen, hazkunde koantitatiboa nabarmena zela, baina horrek ez zuela berekin hazkunde koalitatiborik ekarri. Ikaragarri produzitzen zen, txarra edo ona, dena saltzen zelako, kalitatearen kontua alboratu zuten. Guk orduan, hor jarri behar genuen gure ukitua: «Kontuz, ez alboratu kalitatearen arazoa».

EGUNKARIA.— Gizartea ez al da

oso berandu konturatu, orain dela oso gutxi, neurrigabeko garapen horrek ekar zitzakeen ondorio txarrez?


LARRAÑAGA.— Bai, dudarik gabe. Gogoratzen dut, 1970-72 inguru hartan Goierri aldean eta egindako lan batzuen ondorekin horixe esan genuen. Baina kontua zen, garai hartan inork ez ziela heltzen bestelako arazo horiei. Zaila zen. Produktzio handia zenean, eta momentuko etekinak oso handiak zirenean inbertsioak egin beharra eta kalitatea mantendu beharra eta abar ikustea zaila zen. Baina batzuek egin zuten. Guk egindako azterketek eskertu, esaterako, Arrasaten ez zen elektrotresnen alorra gehiago garatu eta munstro bilakatu, azterketaren ondorioz, horrek Arrasaterako monokultibo baten arriskua ekar zezakeela ikusi zutelako.

EGUNKARIA.— 25 urte hauetan zerk harritu zaitu gehien?

LARRAÑAGA.— Beharbada, gizarte batek izan ditzakeen gorabeherak ikustekak, aurrirak oso zailak direnak, eta sakonekoak gainera. Hemen gerra ostetik hona izan diren gorabeherak izugarriak izan dira, bai alor demografikoan (jaiotze tasaren beherakada), bai sozio-ekonomikoan (energiaren krisia eta industri birmoldaketa), hirigintzan, eta gizartearen beste esparru askotan, eta batez ere, giza balioetan, pentsamoldeetan (pentsakera tradizionalatik postmodernora).

Horrek aurrirak daitezkeen

Gizarte batek izan ditzakeen sakoneko gorabeherak ikustekak harritu nau gehien, hemen gerra ostetik hona izugarriko aldaketak gertatu dira.



fenomenoak erlatibizatzen eraman nau, eta baita ere momentuan bizi dituzun arazo batzuen proportzioak erlatibizatzen.

EGUNKARIA.— Alor sozio-ekonomikoan jarraitu al duzue gaur egunera arte?

LARRAÑAGA.— Bai, horretan segitu dugu, eta orain ere jarraitzen dugu. Orain, hala ere, azterketa sozio-ekonomiko orokorrak baino gehiago sakondu, eta gehiago hurreratu gara arazo sozialagoetara, ongizate munduko arazoetara: hirugarren adinekoak, gazteriaren arazoak, txirotasun guneak.

EGUNKARIA.— Eta noiz hasi zineten sozio-linguistika alorreko lanekin?

LARRAÑAGA.— 1978an Euskaltzaindiarentzat egin genuen azterketa sozio-linguistiko orokorra izan zen lehenbiziko lana, eta hori izan zen gainera zazpi probintzietan egin zen lehenbizikoetako lana. Aurretik Irizarrek egindako datu bilketa baino ez zegoen. Egoera orokor horren bilakaera aztertzea izan zen gurea. Hau da, euskarak atzera egin zuen tokietan zergatik egin zuten, mantendu zen tokietan zerk eutsi zion eta aurrera egin zuenean zein ziren bultzatu zuten fakto-

duzue, egoeraren ezagutzeak berak, zerbaiten berri izateak, egoera horri kolpe bat emateko, edo hori aldarazteko balio duela?

LARRAÑAGA.— Gure konklusioetako bat horixe bera izan da. Alegia, ikerketa bat egiteak, diagnosis egiteak eta arazoa ezagutarazteak egoera bera aldatu egiten duela. Egoera baten kontzientzia hartzen den heinean, horrek berak agian inoiz pentsatu ez diren gauzak pentsarazten ditzuelako. Hori nabarmen ikusten da inkestak egitean.

EGUNKARIA.— Zein dira zuen lan nagusiak gaur egun?

LARRAÑAGA.— Bi ataletan jarraitzen dugu lanean, beti ere dugu lan eskaeraren arabera.

Euskaltzaindiarentzat azterketa hura egin genuenetik beti segitu diogu euskararen inguruko lanari eta euskararen egoerari. Laster hasi ginen eskualde batzuetako azterketak egiten eta baita herrikakoak ere —guztira 20tik gora—, hiriburetakoak ere egin ditugu...

Jendearen eskuetan tresna bat jarri nahi dugu, eurek horretaz baliatuz behar diren neurriak har ditzaten, batez ere erabilera bultzatzeko, edo jendearen jarrerak aldarazteko.

Hala ere, ikusi dugu nahikoa ez dela diagnosi bat egin eta proposamen batzuetan gelditzea. Beharrezkoa da hizkuntzaren mekanismoak ezagutu, eta mekanismo horien aplikazioak ere gauzatu eta bideratzea. Guzti honen azpian, gure ikuspuntutik, filosofia bat dago: hizkuntza gertaera soziala denez, bere erreproduktio sozialerako mekanismo berezkoak baditu, eta gertaera sozial iraunkorra izateko ezinbesteko baldintza da erreproduktio sozialerako mekanismoek funtzionatzea. Eta hizkuntzaren iraupena ziurtatu nahi bada, hizkuntza biziarazten duten mekanismoak zein diren bilatu behar da. Esparru bakoitzetarako eta tokian tokiko mekanismo horiek aurkitzea eta horiek euskaraz funtzionaraztea lortzea.

EGUNKARIA.— Egoeraren berri eman eta proposamenak egin ondoren, arrazoi bat edo bestegatik, kontuan hartuak ez zaretela ikustekak frustrazioa sortuko da bada?

LARRAÑAGA.— Bai, beno. Gure arazo nagusienetako bat hori da, lan horien aplikazio praktikoa eta egikaritzapena gure esku ez dagoelako. Azken finean gure proposamenak aurrera ateratzeko erabaki politikoak behar dira, eta politikoei erabakitzen dute zer komeni zaien eta zer ez.

Politikoei momentuko interesei begira daudela ikustea izan ohi da arazo nagusia. Eta etorkizunari begira, hizkuntzaren berreskurapena serio planteatu nahi bada, garrantzia ematea, batetik, eta bestetik, epe luzerako apustua egitea eskatzen du horrek.

- Iñaki Larrañaga, 59 urte.
- Lazkaon jaio eta Itsasondon bizi da.
- Soziologian lizentziatua, Pariseko Sorbonnen, 1960an.
- SIADECOn sortzaileetakoa, 1967an.

reak. Horrez gainera inkesta pertsonal bat egin genuen, 1.200 laguni. 1978an bukatu genuen, eta 'Hizkuntz borroka' izeneko liburuan argitaratu zen gero.

EGUNKARIA.— Zer ekarri zuen liburuak?

LARRAÑAGA.— Lehenaz gainera, kontzientzi hartze bat, jabetze bat ekarri zuen liburu hark, nik uste. Eta beharbada, uste eta estimazio eta gutxi gorabeherako datuen gaineko informazioa, argibide zehatzak ekarri zituen liburuak. Zeren, datuez gainera, jendearen iritzia orduan jakin baikenituen lehenengoz. Adibidez, erdaldunek euskararekiko zer pentsatzen zuten, beren haurrak euskaraz eskolatzea nola ikusten zuten.

EGUNKARIA.— Urteotako lanaren ondorekin, zenbateraino ikusi